

---

Basauriko Udalarentzako prestatutako txostena



## BASAURIKO HIRI MUGIKORTASUN JASANGARRIRAKO PLANA, 2023-2027

ed01

### II. FASEA. PROPOSAMENAK

2024ko maiatza



Txostenaren kontrola:		
<b>Proiektuaren arduraduna:</b>	Lasier Herrero Goienetxea	
<b>Dokumentuaren egilea:</b>	Lasier Herrero Goienetxea	
<b>Berrikusketa:</b>	Iosu Ramirez Freire, Eduardo Garcia Hernández	
<b>Kolaborazioa:</b>		
Historiala		
Edizioa	Data	Entregatzeko modua
01	2024/04/21	Formatu digitalean bidalita
Fitxategia: 2158 Basauri PMUS Fase II Propuestas ed01_FINAL_eu.docx		

LEBER PLANIFICACIÓN E INGENIERÍA, S.A.

**POSTA-HELBIDEA:**

19 posta-kutxatila  
48940 - Leioa, Bizkaia

**BULEGOAK:**

Luis Bilbao Libano Doktorea kalea 10, 2-A  
48940 - Leioa, Bizkaia

Tel.: 94 464 3355

info@leber.org  
www.leber.org

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	3
2. HELBURUAK .....	4
3. ESPARRUAK ETA JARDUERA-PROPOSAMENAK.....	6
3.1 PROPOSATUTAKO NEURRIAK GARATZEA.....	8
Oinezkoen mugigarritasuna	8
1. neurria. Basauriko erdigunean oinezkoen mugikortasuna hobetzea.....	8
2. neurria. Basauriko ikastetxeen inguruan segurtasun handiagoa ezartzea .....	11
3. neurria. Eskola-bide seguruak sustatzea. ....	14
4. neurria. Konektagarritasun bertikalarekin jarraitzea .....	16
5. neurria. Babes klimatikoa egoteko eremuetan eta oinezkoen igarobideetan.....	17
Garraio publikoa	19
6. neurria. Garraio publikoaren geltokiak hobetzea .....	19
7. neurria. Taxi bidezko hiriko garraio-sistema berria diruz laguntzea, Taxi Lagun izenekoak.	20
Txirrindularien mugikortasuna	21
8. neurria. Basauriko hiri-bilbean ziklo-kaleak sortzea.....	21
9. neurria. Hiriko erdigunean txertatzea aldundiko bizikleta-sarea.....	23
10. neurria. Bizikletentzako aparkalekuak mugikortasunerako zentro erakargarrietan .....	25
Zirkulazioa	26
11. neurria. Basauriko erdigunean ibilgailuen trafikoa baretzea eta lasaitzea. ....	26
12. neurria. Ariz auzoko eta Agirre Lehendakariaren ardatzeko eskeman aldaketak egitea	26
13. neurria. Semaforoak kentzea Agirre Lehendakariaren eta Kale Nagusiaren ardatzean ..	29
Aparkatzea	30
14. neurria. Aparkatzeko plaza berriak noranzko bakarreko kaleetan eta berrantolatutako espazioak Basaurin. ....	30
15. neurria. Egonaldi laburretarako aparkatzeko plazak erregulatzea.....	32
16. neurria. TAO sistemaren edo antzekoaren gogoeta egitea Basaurin. ....	34
Zamalanak	35
17. neurria. Zamalanetarako eremuen erabilera egokia bermatzea, informazio- eta zaintza-kanpainen bidez. ....	35
Ingurumena	35
18. neurria. Gutxien kutsatzen duten ibilgailuen erabilera sustatzea fiskalitatearen bidez	35
19. neurria. Ibilgailu pribatua erabiltzeari uzteko kanpainak abian jartzea, udalerrri barruko kutsadura murrizteko. ....	37
Bideko segurtasuna	38
20. neurria. Abiadura handieneko eta jazoera gehieneko eremu eta zatietan bideko segurtasun-plan bat egin dadin sustatzea. ....	38
Hirigintza	39
21. neurria. Mugikortasun-azterketa gehitzea plangintzarako tresnetan. ....	39
4. EKINTZA FITXAK .....	40
4.1 OINEZKOEN MUGIKORTASUN-ESPARRUA.....	40
4.2 GARRAIO PUBLIKOAREN ESPARRUA .....	43
4.3 TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUN-ESPARRUA .....	44
4.4 ZIRKULAZIO ESPARRUA .....	46
4.5 APARKALEKU ESPARRUA .....	48

4.6 ZAMAKETA-LANEN ESPARRUA .....	50
4.7 INGURUMEN-ESPARRUA .....	51
4.8 BIDE-SEGURTASUNAREN ESPARRUA .....	53
4.9 HIRI-ESPARRUA.....	54
5. JARRAIPENA EGITEKO ADIERAZLEAK .....	55
6. JARDUEREN KRONOGRAMA .....	57
7. AURREKONTUA.....	58

## 1. SARRERA

Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana dokumentu estrategikoa da eta Basaurirako Mugikortasun Jasangarriaren eredua zehazteaz gain, udalerriko bizi-kalitatea, garapena eta modernizazioa hobetzeko irizpideetan oinarritutako jarduketa-ildoak planteatzen ditu.

HMJPk hurrengo urteotarako mugikortasun esparruan egingo dituen jarduerak Basauri hiritarrei eta inguruko herritarrei funtsezko zerbitzuetarako eta tokietarako irisgarritasuna bermatuko dien hiri bihurtzera bideratu beharko ditu. Irisgarritasun hori segurtasun handiagoarekin, ingurumenarekiko afekzio txikiagoarekin (tokiko ikuspegitik zein globaletik), baliabideen kontsumo txikiagoarekin eta biztanleriaren integrazio sozial handiagoarekin lortu beharko litzateke.

Txosten hau egin aurretik, Basauriko mugikortasun-egoeraren diagnostikoaren I. fasea eta Planaren parte-hartze publikorako lana egin dira.

I. faseko -diagnostikoa- dokumentu guztiek, parte-hartze publikoek eta II. fase honetakoek -proposamenak- osatzen dute aipatutako HMJP.

Dokumentu hau II. fasekoa da. Diagnostikoa egiteko prozesuaren, parte-hartze publikoaren prozesuen eta helburuen eta estrategien definizioaren proposamenak jasotzen ditu.

## 2. HELBURUAK

Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planak (HMJP) helburu hauek ditu:

*“Hiri- eta lurralde-garapenerako politikak mugikortasuneko politiketan txertatzea, herritarrek beren jardueretarako irisgarritasuna izan dezaten, ahalik eta ingurumeneko inpakturik txikienarekin eta modurik seguruenean.*

*Motorrik gabeko moduak ohiko garraiobide bihurtzea.*

*Garraio eraginkor eta efizientea lortzea energiaren erabilerari dagokionez.*

*Hainbat garraiobiderentzako irisgarritasun unibertsala sustatzea.*

*Udalerriarentzako jarduketak eskaintzea mugikortasun-eredu parekideagoa, inklusiboagoa eta seguruagoa lortzeko, hainbat kolektiboren behar espezifikoak eta irisgarritasun kognitiboa kontuan hartuz.*

*Garraio publiko kolektiboaren eta motorrik gabeko moduen (bizikletaz eta oinez) mugikortasuna sustatzen duten baldintzak ahalbidetzea.*

*Bideko segurtasuna hobetzeko proposamenak eta jarduketak egitea.*

*Aparkalekua kudeatzeko proposamenak egitea, dagozkion alderdi guztiekin.*

*Hiri ez hain zaratatsu eta kutsagarria lortzea”.*

Diagnostikoan hautemandako arazoen arabera eta baldintza teknikoen pleguan ezarritako irizpideak betetze aldera, helburu espezifiko hauek planteatu dira, proposamenak egiteko.

### 1.- Barne-mugikortasunean, kanpo-mugikortasuna ahal den heinean eraldatzea.

Kanpo-mugikortasunak isurtzen ditu udalerriko mugikortasunarekin lotutako berotegi-efektuko gasen % 95. Kanpoko mugikortasun handi horren arrazoi nagusia lanerako joateko bidaiak dira.

Kanpoko mugikortasun hori bidaiak laburragoko barne-mugikortasuna bihurtzeko, **jarduera sortu** beharra dago udalerrriaren barruan, lanekoa batez ere, gaitasun handiko garraio publikoa atzemateko arrotan (RENFE, Euskotren eta Bizkaibus) eta bizitegi-dentsitate handia dagoen eremuetan batez ere.

Bi ezaugarri horiekin, bidaien luzera murrizteaz gain, jarduera-eremu horietara erakarritako bidaiak batik bat oinez eta garraio publikoan egitea lortu behar da.

### 2.- Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztea erakarritako mugikortasunetan eta barne-mugikortasunean.

Erakarritako mugikortasunari dagokionez, erabakiak Basauriren esparru barrukoak dira; izan ere, aparkaleku-politika berriarekin aparkalekuak arautuko dira eta bertakoen eta kanpoko lurzorua erabilera orekatuko da, basauriarren kanpoko mugikortasunean gertatzen den moduan. Izan ere, haien bidaiak modu orekatuan banatzen dira garraio publikoaren eta ibilgailu pribatuaren artean, helmugarik nagusienetan aparkalekua arautua baitute.

Udalerriaren barruan, finkatuen dauden eremuetan, biztanle-dentsitate altua duten eta garraio kolektiboaren influentzia-eremuetan zentratu beharko da jarduera. Puntu honetara helduta, Basauriko biztanleria murriztu egin dela eta biztanleria zahartzen ari dela nabarmendu behar dugu.

Azken fenomeno hori udalerriko eremurik finkatuenetan eta zerbitzu publiko zein pribatu gehien eta hobeak dituztenetan gertatu da batik bat, eta hori geldiarazteko, erdiguneko hiri-eremuen suspertze demografikoa sustatzeko neurriak ezarri behar dira. Antzeko prozesuak egin ziren 80ko eta 90eko hamarkadetan, gure geografiako hirietako alde zaharrak suspertzeko. Hala, etxebizitzak biztanleriaren eskari eta behar berrietara egokitu ziren.

### 3.- Udalerrian oinezkoen mugikortasuna are gehiago erraztea

Basaurik oinezkoen barne-mugikortasun handia du.

Beharrezkoa da oinezkoen mugikortasuna sustatzen duten politikekin jarraitzea, eta udalerria esparru horretan erreferente bihurtu duten indarguneak mantendu eta handitu behar ditu. Horretarako, aukera ona da Agirre Lehendakariaren ardatza “gizatiartzea”.

### 4.- Basauriko garraio publikoaren aukera zabalaren gaitasunak aprobetxatzea.

Treni eta Bizkaibus esker, garraio publikoa nabarmen sar daiteke banaketa modulean. Hortaz, gai dira kanpoko harreman jakin batzuetan automobilarekin lehiatzeko, Bilborekin batez ere, baina ez hainbeste udalerrira erakarritako harremanen kasuan. Rol hori indartzeko eta aurreko politikekin jarraitzeko, Basauriko geltoki eta geldialdietarako irisgarritasuna handitzeko jarduketak egiten jarraitu beharra dago, bai oinezkoen irisgarritasunari dagokionez, bai garraio publikoaren beste zerbitzu batzuen bitartez. Esaterako, San Migelgo lantzaderak lotura du Metroarekin.

### 5.- Kaleko ibilgailuen presentzia murriztea eta espazio hori beste erabilera publiko batzuentzat erabiltzea.

Kalean herritarren erabilera propiorako eskuragarri dagoen espazioa handitzeko, ibilgailuei bideratutako espazioa murriztu behar da. Horretarako, beharrezkoa da ibilgailuek presentzia txikiagoa izatea. Aparkatzeko azpiegiturak garatuz, bideetan aparkatzeko plazak murriztu daitezke eragin handieneko eremuetan.

### 6.- Zirkulazio-arazo puntualak hobetzea

Automobilaren erabilera murriztu behar dela nabarmendu dugun arren, Basauriko herritarren kanpo- eta barne-bidaietan bereziki, harreman batzuk modu horretara soilik egin daitezke. Horri dagokionez, harreman horiek beharrezko arintasunarekin egitea bermatu beharko da, bai bidaiarien onurarako, bai hiri-espazioa erabiltzen duten pertsona guztien onurarako.

### 7.- Udalerriko zamalanak behar bezala kudeatzea.

Salgaiak banatzea beharrezko jarduera da, betiere, gure herriek bertako jarduera mantentzea eta kanporanzko lekualdaketak saihestea nahi baldin badugu, batez ere autoz egindakoak, herritarren erosketa-beharrak asebetetzeko. Horretarako, beharrezkoa da karga eta deskargara bideratutako eremu publikoek beren funtzioa ondo betetzea. Kontrako kasuan, banaketa-jarduerak itxuraldaketa handiak eragiten ditu herriko barne-mugikortasunean.

### 8.- Herritarren aparkatzeko baldintzak hobetzea.

Plan honen helburua automobilaren erabilera murriztea den arren, ezin dugu alde batera utzi garraiobide horrek protagonismo handia duela udalerrian,

biztanleen artean bereziki. Horregatik, aparkalekuak kudeatzea beharrezkoa da, bai herritarrek duten aparkatzeko behararengatik, bai gaindimentsionamendua ekiditeko. Izan ere, horrek eskaria eragingo luke bisitariarentzat bereziki, eta herritarrentzako probetxuzkoagoak diren beste gauza batzuetarako espazio publikoa galduko litzateke.

#### 9.- Udalerrko isurpen kutsatzaileak murriztea.

Esparru hau da HMJPren oinarrizko elementua. Hain zuzen ere, proposamen gehienak ingurumen-hobekuntzara daude zuzenean bideratuta. Mugikortasunarekin lotutako isurpenek aurkako bi eragin dituzte: berotze globalari ekarpena egiten diote (CO<sub>2</sub>) eta tokiko biztanleriaren osasuna okertzen dute (mikropartikulak eta NO<sub>x</sub>).

Hortaz, ibilgailuek erabiltzen dituzten erregai fosilek eragindako isurpen horiek murriztea edo horiek desagerraraztea Planaren helburu gakoetako bat izan daiteke.

Helburu honetarako, erreferentzia gisa balio du Europako Batzordearen Garraioaren Liburu Zuriak. Garraio sektorerako, 2050 urterako, 1990rekin alderatuta, negutegi-efektuko gasen igorpenak % 60 murriztea jarri du helburu gisa. Gainera, 2030erako, 2008rekin alderatuta, igorpen horiek % 20 murrizteko helburu partziala ezarri du.

#### 10. – Udalerriko bideko istripuen-tasa murriztea.

Bide-sareko ezbehar kopurua da egungo mugikortasunak dituen ondorio negatibo garrantzitsuenetako bat eta HMJPko helburuekin talka egiten du. Ezbehar kopuruak dituen ondorio dramatikoak direla eta, efektu horiek arintzeak herritarren bizitza-kalitatea nabarmen hobetzen lagunduko du.

Oinarrizko helburuen arabera, neurrien katalogo bat sortu dugu, dagokien jarduketak-esparrua oinarri hartuta:

- Oinezkoen mugigarritasuna
- Garraio publikoa
- Txirrindularien mugikortasuna
- Zirkulazioa
- Aparkatzea
- Zamalanak
- Ingurumena
- Bideko segurtasuna
- Hirigintza

**3. ESPARRUAK ETA JARDUERA-PROPOSAMENAK**

Proposatutako neurriak aipatutako bederatzi esparruen barruan sartzen dira. Jarraian, proposamen horien laburpena egingo dugu eta aurrerago garatuko ditugu.

ESPARRUA	KOPURUA	NEURRIA	DESKRIBAPENA
Oinezkoak	1	Oinezkoen mugikortasuna hobetzea Basauriko erdigunean, eta neurri zehatzak ezartzea beste auzoetan.	Oinezkoentzako lehenetsutako jarduketan sare bat definituko da, Agirre Lehendakariaren ardatz nagusia "gizatiarteko", besteak beste, zirkulaziorako bide bat kentzea espaloi gehiago izateko, semaforoak kentzea eta oinezkoentzako desplazamenduak arintzea. Gainerako auzoetan, oinezkoentzako desplazamenduaren kalitatea hobetzeko ekintzak sustatuko dira, Agirre Lehendakariaren proposamenaren eredu erabiliz Basauriko beste puntu batzuetan.
Oinezkoak	2	Basauriko ikastetxeen inguruan segurtasun handiagoa ezartzea.	Urbiko eskola-eremuaren sarreran espaloia handitzea eta babeserako "belarri" berriak jartzea ikastetxeetarako oinezkoentzako sarbideetan.
Oinezkoak	3	Eskola-bide seguruak sustatzea.	Azterketa bat sustatuko da ikastetxeetarako bide seguruak definitzeko, ikasleek helduen laguntzarik gabe egin ahal izateko eskolarako joan-etorriak.
Oinezkoak	4	Oinezkoen konektagarritasun bertikala sustatzen jarraitzea.	3 igogailu berri eraikitzea.

ESPARRUA	KOPURUA	NEURRIA	DESKRIBAPENA
Oinezkoak	5	Babes klimatiko ezartzea oinezkoentzako egoteko eta igarotzeko eremuetan eta "Birnaturalizazio" kontzeptua txertatzea Basauriko Udalak etorkizunean egiten dituen proiektuetan.	Haurrek jolasteko eremuak eta oinezkoentzako igarobideak babesten jarraitzea, hala nola Urbirekin lotzen duen Nerbioi zubia. Espazioen birnaturalizazioa sustatzea Basauriko Udalak egiten dituen proiektuetan, ahal den heinean.
Garraio publikoa	6	Garraio publikoaren geltokiak hobetzea	Agirre Lehendakaria kaleko 76 zenbakiko geltokia babestea.
Garraio publikoa	7	Taxi bidezko hiriko garraio-sistema berria diruz laguntzea, Taxi Lagun izenekoa.	Neurri horren helburua da beren etxeetatik osasun-zentroetara eta adinekoen zentroetara joaten diren adinekoen mugikortasuna hobetzea, hilean bidaia-muga bat ezarriz.
Txirrindularia	8	Basauriko hiri-bilbean ziklo-kaleak sortzea.	"Basauri 30" kontzeptuari esker ibilgailuek eta txirrindulariek parteka dezakete galtzada, bizikletentzako bide bereziak sortu beharrik gabe. Seinale horizontal eta bertikalen bidez adieraziko zaie ibilgailuei bideak bizikletekin partekatuak direla.
Txirrindularia	9	Hiriko erdigunean txertatzea aldundiko bidegorri-sarea eta BizkaiBizi programa atxikitzea.	Ziklo-kaleen kontzeptuari esker, aldundiko kanpoko bidegorrien barne-lotura osatu ahal izango da, Arrigorriagatik eta Etxabarritik Agirre Lehendakariaren kaleraino. Bizkaiko Aldundiaren BizkaiBizi zerbitzuak alokairuko bizikletak eskaintzen ditu erriberako 9 udalerritan. Proposamen horri esker foru aldundiko zerbitzu hori Basauriraino eta gertuko inguruneraino zabaldu nahi da.
Txirrindularia	10	Bizikletentzako aparkalekuak mugikortasunerako zentro erakargarrietan.	Basauriko hainbat interes-puntutan (ikastetxeak, kultur jarduerak, kirolekoak, garraio publikoa...) bizikletentzako aparkalekuak jartzeak bizikleten segurtasuna bermatzeaz gain,

Basauriko Udala/Ayuntamiento de Basauri. Sarrera-erregistro elektronikoa/Registro general entrada. Dokumentuaren egiaztasuna balaztatzeko https://egiazta.basauri.eus/EKS/ Para validar la autenticidad de este documento: https://sede.basauri.eus/CSV\_Egiazta Kode Seguroa (EKS) / Código de verificación (CSV): 15250605683422003532

ESPARRUA	KOPURUA	NEURRIA	DESKRIBAPENA
			bizikleten erabilera sustatzen du Basaurin.
Zirkulazioa	11	Basauriko erdigunean ibilgailuen trafikoa baretzea eta lasaitzea.	“Basauri 30” kontzeptua modu eraginkorrean ezartzea, seinaleekin, abiadura murrizteko elementuekin eta radar-kanpainekin puntu sentikorretan.
Zirkulazioa	12	Ariz auzoko eta Agirre Lehendakariaren ardatzeko eskeman aldaketak egitea.	Agirre Lehendakariaren ardatzean bide bat kentzea, eta Ariz eremuko trafikoaren noranzkoetan aldaketak egitea, Basauriko erdiguneko oinezkoen mugikortasuna hobetzeko.
Zirkulazioa	13	Semaforoak kentzea Agirre Lehendakariaren eta Kale Nagusiaren ardatzean.	Neurri horrek oinezkoen mugikortasuna sustatu nahi du, semaforoetan itxaroteko denbora murriztuz, oinezkoek izan dezaten lehentasuna ibilgailuaren aurrean.
Aparkatzea	14	Aparkatzeko plaza berriak noranzko bakarrek kaleetan eta berrantolatutako espazioak Basaurin.	Basauriko trafikoaren zirkulazio-eskema berriak aukera ematen du ibilgailu pribatuentzako espazioak irabazteko, hornikuntzarik eskasena duten eremuetan, zein noranzko bakarrek bideetan, esaterako Katalunian. Halaber, berreskuratutako bideetan ere, esaterako Antonio Fernandez kalean, aparkatzeko plaza berriak sortzea proposatzen da. Bizkotxalde parkearen inguruan ere plazak gehituko dira, birmoldatu ondoren.
Aparkatzea	15	Egonaldi laburretarako aparkatzeko plazak erregulatzea.	Anbulatorioaren eremuan, Jose Garai Doktoarearen kalearen moduko beste eremuetan eta Basauriko Udalaren alboan plaza berriak egiteko garaian, egonaldi laburretarako aparkatzeko plazak erregulatzea proposatzen da, egun ambulatorioan dagoen eredia kopiatuz.

ESPARRUA	KOPURUA	NEURRIA	DESKRIBAPENA
Aparkatzea	16	TAO sistemaren edo antzekoaren gogoeta egitea Basaurin.	Aparkalekuei buruzko azterketa xehea egiteko oinarriak ezartzea, alderdi guztiak ebaluatzen eta erabakiak hartzeko tresnak ezarri ahal izateko, araututako aparkaleku-sistema bat exekutatu hala ez erabakitzen.
Zamalanak	17	Zamalanetarako eremuen erabilera egokia bermatzea, informazio- eta zaintza-kanpainen bidez.	Erabiltzaileari informatzea eta arau-hauste horiek zaintza eta zigortzea beharrezkoa da horiek ekiditeko eta zamalanak errazteko.
Ingurumena	18	Gutxien kutsatzen duten ibilgailuen erabilera sustatzea fiskalitatearen bidez.	Ibilgailu ez hain kutsatzaileak eta elektrikoak erostea sustatuko da, udal-zergetan horien aldeko diskriminazio positiboa ezarri eta, aldiz, diskriminazio negatiboa kotxe kutsatzaileen kasuan, diru-bilketaren konputu orokorra aldatu ez dadin.
Ingurumena	19	Ibilgailu pribatua erabiltzeari uzteko kanpainak abian jartzea, udal-erri barruko kutsadura murrizteko.	Basaurin planteatutako trafiko-eskema berriarekin, oinez edo bizikletaz joatea ibilgailu pribatua erabiltzea baino askoz ere azkarragoa da. Existitzen diren ekimenak sustatzea, esaterako Metrominutua, interesgarria da.
Bideko segurtasuna	20	Bideko segurtasun-plan bat egin dadin sustatzea.	Zirkulazio-abiadurarik handiena hauteman den lekuetan, esaterako San Migelen, eta udaltzaingoak jazoera gehien erregistratu dituen lekuetan, istripuen arriskua murrizteko neurriak ezarri beharko dira. Horretarako, abiadura radar bidez neurtzeko kanpainak izango dira ekintzarik egokienak.
Hirigintza	21	Mugikortasun-azterketa gehitzea plangintzarako tresnetan.	Proposamena da hirigintzako plangintzaren edozein figurak mugikortasunean izango duen inpaktua gehitzea, bereziki berriki onartutako HAPON eta, ahal dela, mugikortasun-eredua ezartzeko tresnak erabiliz.

### 3.1 PROPOSATUTAKO NEURRIAK GARATZEA

Aurreko taulan zerrendatutako neurriak deskribatutako esparru estrategiko bakoitzaren barruan sartzen dira. Kapitulua honetan, esparru horietan taldekatuta egiten da garapena.

#### OINEZKOEN MUGIGARRITASUNA

Oinezkoen mugikortasuna da hiri-mugikortasun jasangarrirako planean lehentasuna izango duen ardatza, ingurumenean inpaktu apalena duen modua izateagatik, bitartekorik ez kontsumitzeagatik eta irismen unibertsalagatik. Horrez gain, gainerako joan-etorrietarako osagarria da; izan ere, bidaiak motorizatuak egiten dituzten erabiltzaileek ere bidaiaren zati bat oinez egiten dute –muturretan–.

Argudio horiez gain alderdi demografikoa ere gehitu beharra dago; izan ere, Basaurik adinekoen proportzio handia du eta mugikortasun mota hori maiz erabiltzeaz gain, adinekoek zaurgarritasun handia dute trafiko-arriskuen aurrean; gainera, oinezkoen mugikortasunari dagokionez, zailtasun fisikorik handiena duen sektorea da.

Oinezkoen mugikortasuna jorratzeaz gain, hiri-espazioaren kontzeptua ere jorratzen da egoteko eta elkartzeko elementu gisa.

#### 1. neurria. Basauriko erdigunean oinezkoen mugikortasuna hobetzea

Basauriko HMJPren diagnostikoan jasotzen den moduan, oinezkoen mugikortasunaren ehuneko altua da basauriarren faktore bereizgarrietako bat. Fenomeno hori hobetzeko eta sustatzeko proposamena da Agirre Lehendakariaren kaleko zirkulazio-bide bat kentzea, 74. ataritik 58. bitarte.


#### Onurak

Neurri horrekin Agirre Lehendakariaren ardatzean oinezkoentzako igarobideen distantzia murrizteaz gain, igarobidea hiru bidetatik bira murriztuko da. Ardatzeko semaforoak kentzearekin batera, neurri horrek udalerriko nukleoko oinezkoen mugikortasuna hobetuko du.

#### Ekintzak


Berreskuratutako bidea oinezkoentzako espaloia handitzeko erabiliko da. Neurri horrekin, Agirre Lehendakariaren kaleko igoeraren eskuineko espaloia handitu daiteke (59. ataritik 51. atarira), alde horretan hornikuntza komertzial handiagoa baitago, eta igoeraren ezker aldeko espaloia handitu egingo da (72. ataritik 64. atarira). Neurri horrekin, gainera, “chicane” moduko bat sortuko da Agirre Lehendakariaren ardatzean, ibilgailuen abiadura murrizteko.

Egungo aparkalekuak ez dira kenduko inolaz ere, lekuz baino ez dira aldatuko.




Goiko irudian eskema moduan ageri da ardatzaren bi aldeetan espaloiak handitzeko balizko eredu eskematikoa, fatxada bakoitzaren karga komertzialaren arabera. Urdinez ageri da jarduteko proposamena eta izokin kolorearekin aldatu nahi den egungo egoera.

Jarraian, zatiz zati aztertuko dugu neurri horrekin lortutako oinezkoen irabazia.



Agirre Lehendakariaren ardatzaren lehenengo zatian, Urbitik, Ariz kioskoaren aurreko espaloiak irabaziko duena ikus daiteke, eta, kontrako aldean “belarri” bat egingo da, autobus-erabiltzaileentzako markesina berri bat instalatzeko. Egungo autobus-geltokia zatiaren amaieraraino handituko da, eta zamalanen espazioa okupatuko du.



Hurrengo zatian, espaloia handitzeko proposamena kontrako aldean egingo da, alde horretan komertzio gehiago daudelako. Gainera, konfigurazio horrek “chicane” moduko bat sortuko du ibilgailuen abiadura murrizteko.

Egungo aparkaleku-plazen kopurua berdin mantenduko da, baina lehen zati hori zamalanetarako izan daiteke, hasierako zatiaren galera konpentsatzeko, autobusaren badian sartuko bailitzateke.



Agirre Lehendakariaren eremuan aplikatutako neurri horiek guztiak Basauriko auzo guztietara zabaldu eta kopiatu daitezkeen antzeko jarduerentzako jarraibidea eta eredia dira.

## 2. neurria. Basauriko ikastetxeen inguruan segurtasun handiagoa ezartzea

Basauriko ikastetxeen inguruetan ikasle asko elkartzen dira ikastetxeetara sartzeko garaian. Fenomeno horren adibide argi bat ematen da Urbiko eskola-eremuan, 3 ikastetxe baitaude eremu horretan bertan (Urbiko Institutua, Bidebarrietako Lanbide Heziketa eta Jose Etxegarai Ikastetxea).



### Onurak

Segurtasuna funtsezko elementua da eskola-inguruneetan eta ingurune horiek babestu eta zaindu egin behar dira, udalerriko gazteak oinez joan daitezen sustatzeko.

### Ekintzak

Proposamenen multzo horren barruan, ikastetxeen sarreren inguruko puntuak zaintzeko Basaurin egin daitezkeen ekintza-sorta bat erakutsiko dugu.




Urbiko eskola-eremurako espaloia irabaztea planteatzen da, Urbi hiribidetik Agirre Lehendakariaren hiribidera sartzeko 2 bideak batera murrizteko. Neurri horrek bi helburu ditu: zubitik gertuen dagoen aldean espaloia irabaztea (aurreko orrialdeko argazkiak goizean izaten dira pilaketak erakusten du) eta bi espaloiak gerturatzea, bi aldean arteko bidea ahalik eta laburrena izan dadin.



Basauri Ikastetxearen sarbiderako proposamena da “belarri” bat gehitzea, egun dagoeneko beste aldean dagoena osatzeko. Hala, ikusgarritasuna lortuko da, bai oinezkoek autoak ikusteko, bai autoek oinezkoak ikusteko.



Basauri Ikastetxearen kasuan bezala, Uribarri BHI ikastetxearen kasuan ere proposamena da zirkulazioaren bidean "belarri" bat gehitzea. Hala, 4,5 metroko zabalera izango du, txandakako bi noranzkoko bidea dela kontuan izanik.



Probidentzia Andra Maria ikastetxekeo proposamena da ikastetxekeo sarreraren aurrean dauden 2 aparkaleku-plazak kentzea, sarrera handiagoa izan dadin.



Kareaga Goikoa Ikastetxe Publikoko proposamena bestelakoa da. Argazkian ageri den oinezkoen pasabide goratua da ikastetxera sartzeko sarbidea eta aldapa nabarmena duen bide batean dago. Gorago abiadura murriztaileak dauden arren, ibilgailu batzuk 30 km/orduko abiaduratik gora iristen dira puntu horretara. Horregatik, “kuxin berlandarrak” jartzea proposatzen dugu, abiadura murrizteko eta zati horretan ibiltzen diren autobusei ez oztopatzeko.

### 3. neurria. Eskola-bide seguruak sustatzea.

Aurretik azaldutako neurriaren ildotik eta hortik eratorrita, azterketa bat egitea sustatuko da ikastetxeetarako bide seguruak definitzeko, ikasleek helduen laguntzarik gabe egin ahal izateko eskolarako joan-etorriak. Ikastetxeen laguntza zian beharko da beti.

Ibilbide horiek udalerriko ikastetxe bakoitzarentzako espezifikoak izan beharko dira. Horretarako, ikastetxeak eta ikastetxe bakoitzeko guraso-elkarteak barne hartzen dituen azterketa espezifiko bat egin beharko da, bideen diseinuari buruz duten iritzia biltzeko. Halaber, eskolako ibilbide seguruak egiteko garaian ikasleen etxebizitzaren datu-basea izango da.

Prozesuan, interesa duen ikastetxe bakoitzak dagokion azterketa egiteko laguntza eskatu beharko dio udalari. Emaiza izango da ikasleak elkartzeko puntu batzuk definitzea, eta ikastetxeko langile baten edo kolaboratzailearen baten laguntzarekin joatea ikastetxera, bide jakin batetik.

Hurrengo orrialdeko irudiak erakusten du udalerrian dauden lehen mailako ikastetxeen kokapena.

#### Onurak

Ikastetxeetako bide horien helburua da eskola-ingurunea hobetzea, ikastetxera joaten diren autoen kopurua murrizteko, kutsadura-mailak murrizteko eta hala nahi duten haurrek ibilgailu motordunik gabe eta modu seguruan joan ahal izateko Basauriko ikastetxeetara. Ikastetxeetako bideak haurren obetsitatearen eta sedentarismotik eratorritako beste gaixotasun batzuen aurka egiteko modu eraginkorrak dira. Haurren autonomia sustatzen da eguneroko joan-etorrietan, baita haien partaidetza ere.

#### Ekintzak

Definitutako ibilbideetan, ikasleentzako arriskutsuak izan daitezkeen puntuak hautemango dira. Basauriko Udalak konpromisoa hartuko du horietan hautemandako arazoak konpontzeko.



Basauriko haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen kokapena.

#### 4. neurria. Konektagarritasun bertikalarekin jarraitzea


Gaur egun, Basaurik 7 hiri-igogailu ditu irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzen laguntzeko eta hainbat kale edo eremu lotzeko. Igogailu horiek gabe mugikortasuna zaildu egingo litzateke, aldapa handiak baititu udalerriak. Hori dela eta, udalerrian aurreikusita dauden 3 igogailu berriak exekutatzeko proposatzen dugu.

#### Onurak

Igogailuek dakartzaten mugikortasuneko erraztasunei esker, pertsona askoren egunerokoa errazagoa da, bereziki mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonena, adinekoena, haurren aulkia eraman behar dutenena...

#### Ekintzak

Udalerriko hainbat puntutan proiektatutako igogailuen eraikuntza lehenestea Zehazki, Foruak eta Kareaga Goikoa kaleen eta San Migel eta Karmelo Torre kaleen artean.



Basauriko Udala/Ayuntamiento de Basauri. Sarrera-Enregistro Electronikoa/Registro general entrada. Dokumentuaren egiaztasuna balazteatzeko https://egitza.basauri.eus/EKS/ Para validar la autenticidad de este documento: https://sede.basauri.eus/CSV/ Egiazteko Kode Seguroa (EKS) / Código de verificación (CSV): 1525060568342003632

### 5. neurria. Babes klimatikoa egoteko eremuetan eta oinezkoen igarobideetan

Babes klimatikorako neurri hori ez da berria Basaurin, udalerriko hainbat puntuk estalkia baitute dagoeneko. Helburua da beste eremu batzuetan horrelako elementu motak sustatzen jarraitzea.

#### Onurak

Babes klimatikorako elementuak, hala nola zuhaitzak eta estalkiak, garrantzitsuak dira oinezkoen mugimendu eta egonaldi erosoak bermatzeko urteko edozein garaitan.

#### Ekintzak

Egoteko leku erakargarriak (haurrentzako parkeak eta aisialdirako eremuak) eta babesik gabeko oinezkoentzako bideak hautematea (Nerbioi ibaiaren zubia).

Ibaiaren erriberaren eta Social Antzokiaren inguruan dauden haurrentzako parkeetan neurri hori ezartzea planteatzen da.





Nerbioi ibaiaren zubiak Ariz eta Urbi auzoak beraien eskola-eremuarekin lotzen ditu. 70 metro luze inguruko taula bat du eta egun Kale Nagusian, Miradores eremuan dagoen estalkiaren moduko batekin estal daiteke, zubitik igarotzen diren oinezkoen igarobidea babesteko.

## GARRAIO PUBLIKOA

Distantzia jakin batetik aurrera, beharrezkoa da motordun ibilgailuetara jotzea - bizikletaren kasuan salbu, baina distantzia mugatu baten barruan hori ere, nahiz eta modu horrek ez duen erabilera handirik oraindik ere Basaurin-.

Alde horretatik, ibilgailu pribatuaren eta garraio publikoaren artean, lehendabizikoak eragin kaltegarriagoak ageri ditu: isurketa gehiago, bitartekoen kontsumo handiagoa, lurzoru gehiago okupatzen du eta hilkortasun-tasa handiagoa du.

Hala ere, automobilarekin alderatuta, garraio publikoak zailtasunak ditu bere geltokien inguruko eremuetan influentzia-eremu mugagabea izateko. Hori dela eta, ibilgailua da garraio publikoaren zerbitzuetatik urrutien dauden eremuetara iristeko balizko garraio-eskaintza bakarra, eskari handia dela eta maiztasun handiak izan ezean.

Hortaz, garraio publikoak motordun garraio horren eskaria jaso ahal izateko, beharrezkoa da harremanen bi muturrak garraio kolektiboaren eragin-eremuen barruan egotea eta zerbitzuek eskaintzen dituzten maiztasunak eta bidaiari-denborak bidaiarientzako erakargarriak izatea, automobilarekin lehiatu ahal izateko.

### 6. neurria. Garraio publikoaren geltokiak hobetzea


Udalerrriak garraio publikoaren sare handia izan arren, eta Basauriko bide nagusietako geltokiek denbora errealeko informazioa duten arren, elementu batzuk hobetu daitezke oraindik ere, itxaronaldiak eroso eta babestua izan behar baitu.

#### Onurak

Garraio publikoaren erabiltzaileak denborarekin hel daitezke geltokira. Babestutako itxaronaldia asko baloratzen da garraio publikoaren operadoreek egite dituzten asebetetze-inkestetan.

#### Ekintzak

Agirre Lehendakariaren kaleko 76. zenbakiko geltokia da Bizkaibuseko erabiltzaile gehien dituen bigarren geltokia Basaurin. Oinezkoen espaloian dago geltokia eta oinezkoak eta bidaiariak igarotzen dira bertatik. Informazio-panel bat eta denbora errealeko itxaron-denborak erakusten dituen pantaila bat soilik ditu. Interesgarria izango litzateke estalki bat jartzea, garraio publikoa erabiltzen dutenak babesteko, baina, bestalde, gainerako oinezkoek oztoporik gabe gurutzatu ahal izatea bermatu behar da.



**7. neurria. Taxi bidezko hiriko garraio-sistema berria diruz laguntzea, Taxi Lagun izeneko.**

Basauriko 75 urtetik gorako biztanleria herritar guztien % 14 da. Bizkaiko udalerririk zaharrenetako bat da eta askotan pertsona horiek bakarrik bizi dira. Pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko eta bakardadea gainditzeko, lurraldeko beste udalerririk batzuetan dagoeneko egin dugun ekimen bat proposatzen dugu. Ekintza sozialeko ekimena da eta Basauriko taxi-gidariekin batera egingo da, adineko pertsonak adinekoen zentroetara eta ambulatorioetara eramateko.

**Onurak**

Basaurin erroldatutako 75 urtetik gorako pertsonak edo mugitzeko zailtasunak dituztenak edo autonomiarik ez dutenak.

**Ekintzak**

Urtean zehar kontsumitzen joango den urteko aurrekontu-partida bat erreserbatzea. Bidaia horiek lizentzia Basaurin duten eta zerbitzu hori eskaintzeko Basauriko Udalarekin hitzarmena sinatu duten taxi-gidariekin egingo dituzte.

Joan-etorriak herriaren barruan egingo dira, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 20:00etara, dalerri horretako edozein lekutatik **anbulategira** edo udalerrian banatutako **adinekoen etxeetara**.

Gehienez 12 bidaia egin daitezke 2 hilabetean.

Bidaia bakoitzaren kostuaren zati bat Basauriko Udalak lagunduko du diruz.

Zerbitzua bermatu ahal izateko, aurreko eguneko 20:00ak baino lehen eskatzea gomendatzen da.

## TXIRRINDULARIEN MUGIKORTASUNA

HMJPren barruan, bizikleta da sustatu beharreko moduetako bat, motordun garraiobideak baino jasangarriagoa baita. Horretarako, ezinbestekoa da bide publikoko erabiltzaile guztien segurtasuna bermatzea, txirrindularien kolektiboa oso zaurgarria baita automobilen aldean. Halaber, espazio publikoko gainerako erabiltzaileen segurtasuna bermatu behar da, oinezkoena batez ere, bizikletekin dauden gatazkak ekiditeko.

Hiru premisa daude horretarako: bizikleten erabilera sustatzea, txirrindularien segurtasuna bermatzea eta oinezkoen segurtasuna bermatzea. Txirrindularien mugikortasunaren eskaintza hobetzea planteatzen da, **azpiegitura trafikoarekin partekatutako sare gisa egituratuz, segurtasun-baldintzen pean.**

Oinezkoekin dauden gatazkak ekiditeko, oinezkoa denez arrisku handienak hartzen dituen, oinezkoek eta txirrindulariek partekatutako bideak ekidingo dira ahal den heinean.

### 8. neurria. Basauriko hiri-bilbean ziklo-kaleak sortzea

Basaurin bizikleta erabiltzea sustatzeko eta “Basauri 30” kontzeptua aintzat hartuta, ziklo-kaleak sortzea planteatu da seinale bertikal eta horizontalekin, 30 km/orduko muga duten kaleetan txirrindulariek zirkulatzeko lehentasuna dutela adieraziz, bizikleta erabat sar baldin badaiteke galtzadan.

Basauriko egungo txirrindularien sarea muturretatik iristen da, Arrigorriagatik eta Etxebarritik, eta hiriko erdiguneak ez du azpiegitura bereizi espezifikorik. Agirre Lehendakariaren ardatzean planteatutako proposamenekin, ziklo-kale bat bihurtuko da zuzenean.

FEMPeK berak (Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa) honakoa gomendatzen du:

- *“Bizikletentzako espaloi berriak eraikitzea ekiditea, oinezkoek dutelako lehentasuna espaloian eta oinezko guztiei arazoak eragiten dizkielako, batez ere, desgaitasuna dutenei, ikusteko desgaitasuna dutenei batik bat.*
- *Ahal den heinean, bizikletentzako espaloiak desegitea edo bizikletentzako espaloiak espaloitik bereiztea, oinezkoek izan dezaten lehentasuna espaloian.*
- *Udaleko araudian bizikletentzako espaloia ez sartzeari, ezta estatuko araudian ere, ez baita izango hiri-eremuan bizikletaz mugitzeko etorkizuneko azpiegitura.*


Txirrindulariek zirkulatzeko ziklokaleen neurriak ezartzeari esker, bizikletek zirkulatzeko kale-sare bat sortzen da Basaurin, herriko muturreko puntuak lotzen dituen eta, hala, garraiobide horren irisgarritasun hobea lortzen da Basaurin barrena. Ondorioz, joan-etorrietarako beharrian errealei erantzun egokiagoa ematen zaie.

Udalerriko kaleetan erabiltzaileen segurtasun egokia izateko, ez da aurreikusten bizikleten zirkulaziorik oinezkoentzat gordetako kaleetan. Basauriko populazioaren adin-egitura aintzat hartuta, beharrezkoa da bereziki zaintzea bizikleta-erabiltzaileen eta oinezkoen arteko harremanak, ikusten baita ugaritzen ari dela adin nagusiagoko populazioa. Horren ondorioz, ezinbestekoa da txirrindularien eta oinezkoen artean sor litezkeen frikzioak saihestea. Horregatik, beharrezkoa izango da horri dagokionez bizikleta arautzeko araudia onartzea.



Seinale horizontala duen ziklo-kalearen adibidea. Bizikletak galtzadaren erditik ibiltzen dira.

Hurrengo grafikoak erakusten du galtzadan ibilgailuen eta bizikleten erabilera bateragarria izateko ezarri den irizpidea, bidearen abiaduraren intentsitatearen arabera.



Iturria: Danimarkako Gobernu. Bizikletentzako sarearen kontzeptuak.



Seinale horizontal eta bertikala duen ziklo-kalearen adibidea. Bizikletak galtzadaren erditik ibiltzen dira.

Basauriko Udala/Ayuntamiento de Basauri. Sarrera-Enregistro Electronikoa/Registro general entrada. Dokumentuaren egiaztasuna balaztatzeko https://egitza.basauri.eus/EKS/ Para validar la autenticidad de este documento: https://sede.basauri.eus/CSV\_Egiazteko Kode Seguroa (EKS) / Código de verificación (CSV): 15250605683422003632

**9. neurria. Hiriko erdigunean txertatzea aldundiko bizikleta-sarea.**


Bizkaiko Bidegorrien Lurralde Plan Sektorialak hainbat eskualde eta udalerrri elkartzeko lurralde-ardatzak planteatzen ditu eta udalerrri bakoitzaren esku uzten du aldundiaren ardatzekin elkartzeko bidegorrien barne-konfigurazioa.

Basaurin, aldundiaren sarearekin elkartzeko bidegorri perimetrala LPSren lehen seiurtekoan egitea planteatu da 2023 eta 2028 bitartean. Aldundiaren LPSri "Basauri 30" eta (noranzko eta bide bakarreko eta bi noranzkoko eta noranzko bakoitzeko bide bakarreko kaleetan abiadura 30 km/ordura mugatzeko DGTren araudia) ziklo-kale kontzeptuak gehitu zaizkio. Ziklo-kaleetan automobilek eta bizikletek azpiegitura

parteka dezakete, eta, hala, Basauriko udalerrria bidegorrien foru-sare osoarekin egongo da konektatuta.


Hortaz, neurri horren xedea da bi faktoreak uztartzea, bizikleten sarea iragazkorra izan dadin Basauriko bide guztientzat.

Bizikleten mugikortasunak aukera gehiago izango ditu hala, eta ez da soilik aisialdi-bidaietara mugatuko.



Basauriko Udala/Ayuntamiento de Basauri. Sarrera-Enregistro Electronikoa/Registro general entrada. Dokumentuaren egiaztasuna balaztatzeko https://egitza.basauri.eus/EKS/ Para validar la autenticidad de este documento: https://sede.basauri.eus/CSV Egiaztatze Kode Seguroa (EKS) / Código de verificación (CSV): 1525060683422003632

Bidegorrien LPS planez eta egungo Basauriko sareaz gain, Basauriko HMJPK hainbat bidegorri proposatzen ditu, bizikleten azpiegitura osatzeko. Helburua da Agirre Lehendakariaren ardatzeraino iristea, eta hura izatea bidaien banatzailea.



Kalero eremutik Pozkoetxera doan proposatutako bidegorri-zatia trenbideen ondotik igaroko da.


Halaber, planteamendua da Bizkaiko Foru Aldundiak Nerbioi Ibaiko udalerrietarako sustatutako BizkaiBizi proiektuari atxikitzea, hitzarmen instituzionalen bidez Basaurira eta alboko udalerrietara iristeko.

### 10. neurria. Bizikletentzako aparkalekuak mugikortasunerako zentro erakargarrietan

Basaurin bizikletaren erabilera sustatzeko elementu garrantzitsuetako bat da udalerriko interes-puntuetan bizikletentzako aparkalekuak jartzea, ikastetxeen inguruetan, kirol-ekitaldietan, kultur ekitaldietan, administrazio publikoaren bulegoetan edo bizikleten erabiltzaileak erakar ditzaketen bestelako puntuetan bizikletak aparkatzea errazteko.

Bizikletak aparkatzeko guneei dagokienez, garrantzitsua da bizikletaren segurtasuna bermatzea lapurreten aurrean. Alderdi hori oinarritzko gisa hartu beharko da bizikleta lotzeko sistema aukeratzeko garaian, baita non kokatu zehazteko garaian ere.

Bada beste faktore garrantzitsu bat ere, bizikletaren erabilera ugaritzeko: garraio publikoarekin lotzea. Horregatik, Basauriko eta San Migeleko Metroaren eta RENFEren geltokietan aparkalekuak jarri behar dira, garraio publikoko bidaia intermodalak egitea errazteko.



**ZIRKULAZIOA**

Ingurumenean eragin handiena duen ohiko garraiobidea autoa den arren, askotan ezinbestekoa suertatzen da, hainbat arrazoi direla medio. Kasu horietan, bermatu behar da erabilerara horrek ahalik eta arintasun handiena izatea, bai joan-etorriari berari dagokionez, bai aparkalekuak bilatzeari begira. Gainerako kasuetan, modu jasangarriagoengatik ordezkatu beharko da.

**11. neurria. Basauriko erdigunean ibilgailuen trafikoa baretzea eta lasaitzea.**

**Basauri 30** jarduketa ezartzeko erreferentzia da noranzko eta bide bakarreko kaleetan eta bi noranzkoko eta noranzko bakoitzean bide bakarreko kaleetarako abiadura 30 km/ordura mugatzeko DGTren araudia.

Neurri horren bidez, oinezkoen eta txirrindularien joan-etorrietarako baldintzak hobetu egingo dira. Oinezkoen mugikortasunak segurtasun handiagoa izango du Basauriko kaleetan; izan ere, nabarmen murriztuko da inor harrapatzeko arriskua, eta, halakoak gertatuko balira ere, ez lituzkete horren ondorio dramatikoak izango.

Txirrindularien mugikortasunari dagokionez, berriz, joan-etorrietarako aukera handiagoak izango dituzte, 30 km/h abiadura-muga den kale guztietan ibilgailuak eta bizikletak batera ibili ahal izango baitira.

Bide-segurtasunari dagokionez, harrapatzeak murrizteaz eta horrek ekarriko dituen efektuez gain, ibilgailuen arteko talkak gertatzeko aukerak ere murriztuko dira, bai eta horien ondorioak ere, dela kalte materialen aldetik, dela kalte pertsonalen aldetik.

Ingurumenari erreparatzen badiogu, abiadura murrizteak esan nahi du ibilgailuek erregai gutxiago kontsumituko dutela, Basaurin ezingo baita autoa gaur beste azeleratu hiri barruan. Horren bi eratako onurak ekarriko ditu: batetik, berotegi-efektuko gasak murriztea, eta, bestetik, motorrek partikula gutxiago isurtzea.

Ingurumen-alderdiaren barruan, era berean, ez da ahaztu behar abiadura murriztearen ondorioz, esekitako partikula gutxiago isuriko dela. Ibilgailuak, bidean zirkulatzean, galtzadan dauden partikulak harrotzen ditu. Zenbat eta abiadura bizkorragoa ibilgailuak, orduan eta efektu handiagoa. Hala, abiadura apalagoetan zirkulatuta, ibilgailuek partikula gutxiago harrotuko dute.

Tankera horretako neurriak martxan ipini dituzten hirietan, hobekuntza nabarmenak lortu dituzte alde horretatik. Adibiderik gertukoenen artean, Bilbo hiria aipatuko genuke, edo urrunago jota, Pontevedra, harrapatzeek eragindako hilkortasun-tasa 0 izatera igaro baita hirigunean.

“Basauri 30” behar bezala betetzen dela bermatzeko, urtean zehar hainbat kanpaina egitea proposatzen da, gidariak kontziente izan daitezen neurri horrek duen garrantziaz eta puntu jakin batzuetako radarraren erabileraz.

**12. neurria. Ariz auzoko eta Agirre Lehendakariaren ardatzeko eskeman aldaketak egitea**

Agirre Lehendakariaren ardatzari eta Ariz auzoari eragiten dion trafiko-eskemak aukera ematen du HMJP honetan jasotako ekintzetako asko egiteko.


Neurri horren bidez, asmoa da Agirre Lehendakariarekin lortutako zirkulazio-bidea berreskuratzea, oinezkoentzako espaloiak hobetzeko, aparkatzeko espazioak irabazteko, istripu-tasa murrizteko elkarguneak sinplifikatuz, **semaforoak kentzeko...**

Hurrengo orrietan Basaurirako proposatutako zirkulazioaren noranzkoen mapa jaso dugu, **bi aukerarekin**. Bertan ikus daitezke neurri horren abantailak.

Lehen aukeran, Katalunia kalearen noranzkoa aldatuko da nagusiki (**kolore gorria**), noranzko bakarrekoa izango da eta Agirre Lehendakariaren kalean izango du irteera. Kale Nagusiko zatiek anbulatoriora izango dute irteera, Gaztela kalera (Agirre Lehendakariaren kaletik doan zatia). Nafarroak noranzko bakarra izango luke, eta irabazitako bidea bizikletentzat eta/edo oinezkoentzat aprobetxatzeko aukera emango luke.


Agirre Lehendakariaren kaleak bide bakarra izango du igotzeko eta beste bat jaisteko. Bidegurutzeak semafororik gabe kudeatu ahal izango dira, mugimendu gatazkatsu gehienak desagertu egingo baitira.

Irabazitako bidea Agirre Lehendakariaren kaleko oinezkoen espaloiak zabaltzeko erabiliko dira, eta ez dira zamalanetarako egungo plazak kenduko. Ardatz horretako semaforoak kendu ahal izango dira eta errepideen eskema berria ezarri ondoren anbar kolorearekin egon ahal izango dira lehen asteetan.



Planteatutako bigarren aukeran, Katalunia kaleen noranzkoa aldatuko da nagusiki (kolore gorria) eta noranzko bakarra izango du: Agirre Lehendakariaren kalea sartzeko eta Gaztela ateratzeko; Kale Nagusiaren zatiak anbulatoriorantz izango dira. Nafarroa kalea 1. aukeran bezala geratuko litzateke.

Proposamen honekin, beharrezkoa izango litzateke Menendez eta Pelaio eta Antonio Trueba eta Berriotxo kaleetan aldaketak egitea, bide-segurtasunagatik eta bidegurutzeak sinplifikatzeko, erantsitako eskeman ageri den moduan.



**13. neurria. Semaforoak kentzea Agirre Lehendakariaren eta Kale Nagusiaren ardatzean**

Lehenengo fasean, semaforoak kentzea proposatzen da, Agirre Lehendakariaren bideen eskema berria ezarri ondoren, mugimendu gatazkatsu nagusiak desagertu egingo dira hala, eta biratzeko pasatzen uzteko seinaleak egongo dira, gaur-gaurkoz Agirre Lehendakariaren ardatzeko beste puntu batzuetan egiten den moduan.

Semaforoak kenduta, oinezkoei emango zaie protagonismoa udalerriko hainbat eremutan, ibilgailuei beharrean. Hala, Begoñako Ama-Berriotxo eta Araba-San Isidro Plaza oinezkoentzako eremuak lotzen dituzten semaforoak kentzeko, hasieran semaforoak anbar kolorearekin piztu daitezke ibilgailuentzat.

Kale Nagusiaren eta Autonomia kalearen arteko elkargunea, Social Antzokiaren aurrekoa, semaforo bidez erregulatzen da, baina eremu horretako ibilgailuen kopurua dela eta, seinale bertikal eta horizontalen bidez bideratu daiteke trafikoa bertan.

Agirre Lehendakariaren eta Kareaga Goikoa kaleen arteko elkargunea, Social Antzokiaren aurrekoa, semaforo bidez erregulatzen da, baina eremu horretako ibilgailuen kopurua dela eta, seinaleen bidez bideratu daiteke trafikoa bertan, semaforoak kenduta.



## APARKATZEA

Aparkalekua funtsezkoa da udalerrira sartzeko mugikortasuna baldintzatzeko eta egungo banaketa modala hobetzeko; izan ere, diagnostikoan nabarmendu zen moduan, basauriarrek garraio publikoa erabiltzen dute hein handi batean udalerritik ateratzeko, eta kanpotik ibilgailu pribatuarekin egiten dituzten bidaien bolumena eskasa da. Hala ere, bizilagunentzat oso rol garrantzitsua dute aparkalekuek, Basauriko mugikortasun-arazorik handiena zein den galdetuta bizilagunek aipatzen duten faktorerik ohikoena baita.

Bi interes horiek eta hiri-espazioaren erabilera bideratzeko, bideen eta aparkatzeko azpiegitura osagarrien kudeaketa egokia egin behar da.

Horretarako tresnarik egokienak dira udalerriko eremu batzuetan aparkalekuak erregulatzea eta bidetik kanpoko plazak jartzea.

### 14. neurria. Aparkatzeko plaza berriak noranzko bakarreko kaleetan eta berrantolatutako espazioak Basaurin.


13. neurrian adierazi den moduan, Katalunia kaleko bidearen eskemaren aldaketarekin, hau da bi noranzkoko izatetik noranzko bakarrera igarotzearekin, irabazitako bidean egungo aparkalekuen hornikuntza handitzea lortuko dugu.



Antonio Fernandez kalean, proposatutako bide-eskema berriarekin, Kale Nagusira jaisteko bide bat irabaziko litzateke eta anbulatorioko aparkalekua handitzeko aukera emango luke, gehieneko denbora ezartzen duen sistema berberarekin.



“BIZKOTXALDE PARKEAREN INGURUKO IRISGARRITASUNA ETA APARKALEKUAK HOBETZEKO PROIEKTUA” proiektuak Bizkotxalde parkearen inguruan aparkalekuen kopurua handitzea planteatzen du, besteak beste. Matxixako kalean xedapen berri bat egitea planteatzen du proiektuak, Uribarri biribilgunera iritsi arte. Proiektu horretan aparkalekuen kokapena aldatuko da eta espaloiarene zabalera murriztu, lineako aparkalekuak diagonaleko bateriako aparkaleku bihurtzeko. Hurrengo planoan daude Bizkotxaldeko aparkalekuen plazak handitzeko jarduketaren esparruak.




Erregulatu daitezkeen Basauriko Udalaren alboko plazak plano honetan ageri dira:

**15. neurria. Egonaldi laburretarako aparkatzeko plazak erregulatzea**


Proposamena da **anbulatorioko aparkalekuaren kudeaketa-eredua** Basauriko udalerriko beste puntu batzuetan **kopiatzea**, hala nola Basauriko Udaletxe alboan (Metrorako sarbidea). Jose Garai doktorearen (Kale Nagusiaren ondoko zatia) eta Agirre Lehendakariaren kalea (BBVA aurrean).



Erregulatu daitezkeen Jose Garai Doktorearen kaleko plazak plano honetan ageri dira:



Erregulatu daitezkeen Agirre Lehendakariaren kaleko plazak plano honetan ageri dira:



**16. neurria. TAO sistemaren edo antzekoaren gogoeta Basaurin.**

Basauriko HMJPren diagnostikoak hauteman du aparkatzeko plazen eskasia dagoela Basauriko hainbat eremutan eta aparkatzeko eremuak erregulatzea izan daiteke Basaurirako konponbidea.

Aparkalekua erregulatzeke sistemek, TAO modukoek, hainbat helburu dituzte:

- Ibilgailuen txandakatzea: Egunean zehar pertsona gehiagorentzako aparkaleku-plazak daudela bermatzea. Horretarako, eremu komertzialetan edo Basauriko komertzioengandik gertu dauden eremuetan ezartzea lehenetsiko da.
- Trafikoa murriztea: Auto pribatuaren erabilera murriztea Basauriko erdiguneko eremuetan, trafikoaren arintasuna hobetzeko. Aparkalekua erregulatzeak aparkaleku bila ari diren ibilgailuen kopurua murriztu dezake eta horrek trafikoa murriztuko du.
- Garraio publikoa sustatzea: Aparkalekua ordaindu behar baldin bada (hau da, ordainpeko TAO ezartzen bada), garraio publikoaren erabilera, oinezkoen mugikortasuna eta bizikletena sustatu daiteke, automobilaren mendekotasuna murriztuz. Basauriren kasuan, mugikortasuneko inkestetan desoreka handia dago: kanpoko bidaietan, garraio publikoa da protagonista nagusia, batez ere, basauriarren helmugetan aparkalekua erregulatuta dagoelako. Hala ere, Basaurira egiten diren bidaietan garraio publikoa ez da hainbeste erabiltzen.
- Airearen kalitatea hobetzea: Kotxe gutxiago baldin badaude zirkulazioan eta aparkatuta, horrek esan nahi du isurpen kutsagarri gutxiago sortzen direla.

Basaurin erregulatutako aparkaleku-sistema bat ezartzetik eratorritako inplikazio nagusien artean hauek daude, goian adierazitako mugikortasunekoz gain:

- Ekonomikoak: TAO sistema ezartzeko eta kontrolatzeko, hau da kudeaketa eraginkorra egiteko, beharrezkoak dira teknologia, giza baliabideak eta baliabide administratiboak. Horrek guztiak kostu bat dakar. Esaterako, doako TAO batek eta ikuskapen-kontrol txikia duen batek 300€/plaza/urteko kostua izan dezake. Aldiz, kontrol zorrotzagoko TAO bat 700€/plaza/urteko kostua izatera hel daiteke.
- Balizko diru-sarrerak sortzea: Ordainpeko TAO ezartzen bada, Basauriko Udalarentzako diru-sarrerak oinezkoentzako eta txirrindularientzako azpiegiturak eta zerbitzu publikoak bihur daitezke.
- Legezkoak eta Araudienak: Udal-araudietan eta politiketan aldaketak egin beharko dira, ordenantzak berrikustea eta aparkatzeko araudi berriak sortzea barne.

